


109. zk.
2002ko urtarrila



Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria



Eneko Etxebarrieta. Bidaia (1999-2002)





URTE BERRI ON!!!

ENVIOS Y DISTRIBUCIONES ARABA S.L.

BIDALKETAK ETA BANAKETAK

20 URTE GASTEIZEN

- **KORRESPONDENTZIA BANAKETA**
- **MARKETING ZUZENA**
- **LOGISTIKA ZERBITZUA**
- **MANIPULATZEA**

Ansoleta Industrialdea

Aratz kalea 22, beheka

Tlfnoa.: 945 15 06 28

Faxa: 945 15 08 74

01006 GASTEIZ

E-posta: endistriaraba@euskalnet.net



URTE BERRI ON GUZTIOI!!!

109. zk. 2002ko urtarrila

4-6. ORR.:

ZIZKA-MIZKAK: HILEKO IRITZIA: L.O.U./ IKUSI-MAKUSI:
Gasteizko kaleetako Gabonetako apaingarri argidunak
gaztelaraz baino ez...

7. ORR:

GEUgune: KanGeuroak, Geu Azoka, GEUekin Mendira

9. ORR:

KULTUR ERROTA, EUSKALGUNE

10-11. ORR.:

LIBURUAK-DISKOAK

13-15. ORR.:

EUSKAL HERRIAK BERE ESKOLA PROIEKTUA

18. ORR:

M^a Angeles Lopez Garcia, Geu aldizkariaren 2001eko
harpidetza kanpainaren irabazlea

19. ORR.:

KOKORTUZ

20-21. ORR.:

L.O.U.

23. ORR.:

EUSKO IKASKUNTZAREN XV. BILTZARRA

25-26. ORR.:

KOLDO MITXELENA INSTITUTUA, euskal heziketaren eredu

27. ORR.:

DIOCESANAS, Lanbide Heziketa euskaraz

28-31. ORR.:

ENeko ETXEBARRIETA, Gasteiztik mundura bizikletaz

32. ORR.:

EMAIZE Sexologia Elkartea gurekin berriro, **MASTURBAZIOA**
hizpide

33. ORR.:

Zeuk aukeratu!

34. ORR.:

Iñigo Sarasolaren komikia



5. ORR.



Araba Bixotzian
ataleko
kolaboratzaile
berria:
Ernesto Murillo
'Simonides'



13-15. ORR.



25-26. ORR.



27. ORR.



28-31. ORR.





GEU Elkartearen ekimenez egina
Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a •
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Aldizkariako batzordea:** Josune Velez de Mendizabal, Edorta Sanz, Edurne Begiristain, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Kazetariak:** Leire Lopez de Aberasturi, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain, Josune Velez de Mendizabal eta Ainhoa Ferron. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Bestelako irudiak-bilaketa:** E.B. **Testuen orrazketa-zuzenketak:** E.B. **Maketa:** Dalvez. **Marrakziak eta logoa:** Iñigo Sarasola. **Araba Bixotzian:** Ernesto Murillo 'Simonides'. **Kolaboratzaileak:** Iñaki Zorrakin, Maiteider Sasieta Murua eta Miren Rodrigo Argote. **Publizitatea eta Banaketa:** Edurne Begiristain. **Sustapen-harpidetza saila:** E.B.Z., Edurne Begiristain.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) • Ale Kopurua: 2.500
LG: VI-582/92 -ISSN: 1133-0988 -

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu (Gasteiz) hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.


LOU ALA LOO?

Bai, LOO. Zeren eta Pilar del Castillo andereari zurrungaka hastea baino ez zaio falta. Euskal Herriko egoera momentuz alde batera utzirik, kriston astakeriak egiten ari dela esatera ausartuko nintzateke (dena ikasle moduan begiraturik).

Irakasleria kualifikatua ekarriko omen du lege berri honek, oposizio bitartez eta objektiboki aukeratuak, prestaketa maila altueneko irakasleak. Hala esaten du berak, baina nahiz eta gure irakasleak jakintsuenak izan, zeinek neurtuko die irakasten dakiten ala ez? Guk, ikasleok? Guretzako irakasle guztiak dira “txarrak”. Beraz, zertarako horrenbesteko kualifikazioa gero dakitena irakasten ez badakite? Horrela lortuko al du “gure estatuko” jakintza maila igotzea?

Beka sistema orokor bat osatuko omen da, dirua inoren oztopo izan ez dadin. JA! Orain ere, diru beharrean daudenek jasotzen dute; baina beharrean daudenek bakarrik ez. Denok dakigu diru kontu horietan “txantxullo” ugari egon ohi dela, eta oraingo hau ez zait iruditzen inongo salbuespen izango denik.

Selektibitatea kenduko dutela eta, hau poza! Kaka zaharra! Baten faltan bi!: lehenengoa, batxilergoa bukatu eta azken bi urteetan egindakoaren errepaso orokorra, eta suspendituz gero, bi urte pikutara!, eta gainera ezer egin ezinik, ezta modulurik ere; lehen froga gaindituz gero, unibertsitatean bertan beste bat, sartzeko modukoa zaren ala ez jakiteko. Adarra jotzen, ala?

Eta zer gertatuko da Euskal ikasleokin? Oposizio bitartez Madrilen (edo ez dakit non) aukeratu behar baldin badituzte irakasleak, zer egingo du euskara sekula entzun ez duen batek gure aurrean? Ikasle asko baikara gazteleraz ikasteaz hitzik ere entzun nahi ez dugunak.

Horrela jarraituko nuke karaktere kopuruari dagokionez mugarik jarri ez balidate. Orain ministro andereari iratzargailuak noiz joko zain geratu beharko dugu (guk ere lehenago lorik hartzen ez badugu).

Maiteder Sasieta Murua
(Ikasle bat)

ARABAKO EUSKAL HOTSAK- ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ALAVA ERAKUSKETA IBILTARIAK

aurrera darrai 2002an ere:

• KANPEZU:

Abenduak 21-Urtarrilak 13

Orain arte ibilitakoak:

GASTEIZ, LAUDIO, AGURAIN, MAEZTU, ARTZINIEGA,
ARGANTZUN, TREBIÑO, ARAMAIO, IZARRA, GOPEGI, ZUHATZU
KOARTANGO, OION, LAPUEBLA LABARKA, LEGUTIO, GASTEIZ
(Unibertsitatea) eta MURGIA.

**GURE LURRALDEKO HISTORIA, ARABAKO
EUSKARAREN HISTORIA ZABAL DADIN!**

araba bixotzian



arg. k.f.b. eta euskaldunon egunkaria



Non dago... "ZORIONAK"????? ("Non dago Wally?"ren bertsio berria)

Aurten Gasteizko kaleetan ez da "Zorionak" dioten apaingarri argidunik ikusterik izan (beno, kexen ostean jarritako bakarra izan ezik), Udalak "Felices Fiestas" (...) dioten apaingarriak baino ez jartzea erabaki zuelako (eta zerrendarekin jarraitzeko, trafiko errotuluak gaztelaraz, euskarazko web orria osatu gabe...)

Udalaren jarrera bai Gasteizko EAJ-EAk bai Batasunak salatu zuten eta argazkian ikus daitekeenez, Batasunako kideek "ZORIONAK" zioen kartela jarri ere jarri zuten, baina honek ez zuen asko iraun, Udalak kenarazi zuen-eta...

EUSKARA. Minutu batzuk iraun zuen zintzilik

EUSKALDUNON EGUNKARIA

2001eko abenduaren 15a



PPk kendu egin du Batasunak Gasteizen jarri euskarazko afixa

Gasteizko Batasunak atzo eguerdian Plaza Berriko sarrera batean zintzilikatu Zorionak leloko afixak minutu batzuk iraun zuen, PP-Uaren udal gobernu taldeak berehala kentzea erabaki baitzuen. Batasunak txartela ipini zuen (argazkiak jaso duenez), Udalak Eguberriak zoriontzeko jarritako apaingarri argidun guztiak gaztelara hutsean zirela ikusirik.

ikusi-makusi

naturaren isladak



Iñaki Zorrakin



"... anonimoa". Bai horixe. Bat baino gehiago. Txantxangorria (*Erithacus rubecula*). Prado parkean.

Hemendik aurrera atal hau finkoa izango da gure orrietan: zerbait saldu, erosi, alokairuan jarri edota alokatu nahi duzula...? Eskola partikularren berri eman nahi duzula? Umeak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko lagun baten

bila zabiltzala...?

**HEMEN DUZUE EUSKARAZ
EGITEKO AUKERA!!!**

(Telefonoz edo
posta elektronikoaren bidez)

GEU AZOKA

• SALMENTAK-ALOKAIRUAK

Etxe bat salgai. 3 logela, 2 egongela (behekosu bana), sukaldea, komuna. Garaje-tailerra. 2800 metro karra-tuko lur-saila. Telefonoa. Lorategia. Oleta (Araba), Gasteiztik 27 km; Otxandiotik 3 km. Leku zoragarria, Urkiolako Parke Naturala oso gertu. Anboto eta Orisolpean. 27 milioi pta. Dei 945 263 119 edo igorri mezua daviesti@inicia.es posta elektroniko helbidera.

• UMEAK-ETXEKO LANAK-ESKOLA PARTIKULARRAK-LANAK...:

*22 urteko gazte batek lan egingo luke asteburuetan.
945 25 13 39 (Josu).

KANGEUROAK

Umeak zaintzeko prest zaudela? KanGeuroen zerrendan agertu nahi duzula? Deitu 945 22 21 53 telefono zenbakira -edo e-mailez- eta eman zure izena, telefonoa eta zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez, arratsaldez, gauez, asteburuak...). Norbaitek KanGeuro baten beharra balu... hemen leukake aukera zurekin zuzenean kontaktuan jartzeko!!

EGUN OSOZ
GOIZEZ
ARRATSALDEZ
GAUEZ
ASTEBURUAK

GEUREKIN MENDIRA

URTARRILEKO
IRTEERA

**ALDAIA
GEBARA**

**URTARRILAREN
20an**

**IRTEERA: goizeko
9.00etan, Txapela
tabernaren aurretik
(Prado kalean)**

'Goizeko irteera'

**Informazio gehiago:
Txipi, 945 13 27 58**

**GEU elkartearen posta
elektronikoa:
geuelkarte@grn.es
Gogoratu aldizkariarena:
geugaste@grn.es**



Bacalao Giraldo

- Egunko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25 •

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

EUSKAL LABELA
LASAGABASTER
 harategia eta urdaitegia
Gasteizko
haragitegirik zaharrena
 Errege aldea, 24
 Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Udaberria
 euskaltegia
 • Euskaltegi Homologatua • Musika eskola
 - Helduentzat • Dantza
 - Ume eta gaztetxoentzat
 Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
 Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

"Herri kirolak eta herri
 jolasak kultura dira"
K U L K I
 www.kulki.org

GORETTI
ILEAPAINDEGIA
 Hedegile kalea (KORRE), 14
 (San Migeleko pasabidea)
 Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

IZ TABERNA
 R A
 JATEXEA
 BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73

MARRAZKIAK • KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
zurbeltz
 Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

IZARRA
TABERNA
 Egurditan, astalabonetik ostialara
JANTOKI
BEGETARIANO
 SAN FRANTZISKO XABIERKOAKEN KANTOIA, 4
 01001 - GASTEIZ
 TEL. 945 27 68 33

MIKO
 Izoziak

Obren egite
 eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
 "Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
 Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
 Florida kalea, 9 behe - 01005 GASTEIZ
 Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

Dazkarprint
 imprenta / inprimategia
Helbide berria....
Landazuri, 7
 ♦ INPRIMATEGIA ♦ Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

ARANBIZKARRA
ZURE
AUTOESKOLA!
 Valladolid kalea, 16
 Tfnoa.: 945 28 28 39
 01002 Gasteiz

Zure begiak, gure kontu

PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo
 teknologiak bakarrik berma dezakete
 ongi egindako lana. Zerbitzu osoa,
 norberaren neurrira, hurbila eta saiataua.

Horixe duzu gure
 konpromisoa.

ZERBITZU
 OPTIKOETAN
1a

MENDIAOPTIKA
 DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
 Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

KULTUR ERROTA-02 (GEU elkartearen eskutik)

URTARRILAREN 22an, asteartea, 20.30etan
Kultur Errota berezia GAZTETXEAN

Geu Elkarteak eta Geu aldizkariak Gaztetxearen aldeko "Bederatzi aste eta erdi" ekimenean parte hartuko dute...

...Urtarrilaren 21etik 27ra "Euskaltzaleon astea" izango da Gaztetxean. Hona hemen Geu-k eskaintzen duena:

• **TETRALORSTXER**

Fusioa, dantza garaikide eta diapositibena (Gasteizko taldea)

• **SAZERDOTISAK/KRISTON GORPUTZA**

Antzerki-mitina eskainiko duen talde gasteiztarra

SAIL BERRIA. SAIL BERRIA. SAIL BERRIA. SAIL BERRIA
EUSKALGUNE,
TOPAGUNE!

GEU ALDIZKARIAREN TXOKO BERRIA DUZU HAU:

EUSKALDUNOK, EUSKALTZALEOK HAN ETA HEMEN BATU GAITZAKEEN TXOKOA, GUNEA... ZURE PROPOSAMENETARAKO TARTEA!

"Euskaldunen arteko harremanak bultzatzeko eta euskaraz egiten diren ekitaldiak aurkezteko" ZURE TXOKOA!

Guk hileroko agendan dakarzkizuegun euskarazko ekitaldiez gain, ziur gaude askok eta askok ihes egiten digutela...

...Horregatik, GASTEIZKO EUSKARAZKO ESKAINTZA KULTURALARI DAGOKION GARRANTZIA EMAN NAHIAN, IKASTURTE BERRIAREKIN SAIL HAU IREKI NAHI IZAN DUGU, EUSKARAZ GOZATZEKO AUKERA GERO ETA ZABALAGOA IZAN DADIN.

BERAZ, ZURE AUZOAN, ESKOLAN, LANTOKIAN, ELKARTEAN, EUSKALTEGIAN... EUSKARAZ EDOTA EUSKARAREN ALDE EGINGO DEN EKITALDI HORRETARA GUZTIOK JOATEKO AUKERA IZAN DEZAGUN, BIDALI HONA INFORMAZIOA.

HAU DA ZURE GUNEA, GURE GUNEA, EUSKALGUNEAI

ORAIN HUTSIK DAGO... BETE DEZAGUN, BA!

ELKARLANEAN ARGITALETXEAREN ESKUTIK...

LARUNBATAK JON ARRETXE

("Trilogia arrakastatsuari amaiera gogoangarria emateko")

"ZUEK BLOK EGIN BEHAR DUZUENA, OSTEGU-
NETAKO PARRANDAREKIN AHAZTEA DA. ZUEI
ASPALDI PASATU ZITZAIZUEN ESTUDIANTE
GAZTEKIN TONTAKERIETAN IBILTZEKO
SASOIA. ZUEK EZ OSTEGUNETAN EZ OSTIRALE-
TAN. LARUNBAT GAUETAN HARRAPAKETAN
IBILTZEN DIREN DIBORTZIATUEKIN SAIATUZ GERO, BEHARBADA
ZEOZER LORTUKO ZENUKETE, EDO BESTELA PUTETXEAN, BAINA
HEMENGO GIROAN... PEDERASTA HALAKOAK!"

JON ARRETXE: BASAURI, 1963 -IDATZITAKOAK: TUBABU / TUPAREN
SEME-ALABAK (BIDAI KRONIKAK) - URREZKO TRIANGELUA / OROI-
TUZ (ELEBERRIAK) - HAKUNA MATATA / HARRESI HANDIRANTZ /
LURRAREN TAUPADAK (GAZTEENTZAKO KONTAKIZUNAK) - ETA
HIRU IPUIN BILDUMA: OSTEGUNAK / OSTIRALAK / ZAZPI KOLORE.



URTARRILEKO ELKARLANEAN LEHIA- KETA

IBAN ZALDUA eta GERARDO MARKULETA ber-
tako idazleek ipuin liburu bat argitaratu zuten batera
1999an. ZEIN LIBURU DA?

BIDALI ERANTZUNA POSTAZ
EDO E-POSTAZ, eta ZORTE ON!

*ABENDUKO LEHIAKETAKO KRITIKA KONSTRUKTIBO-
ENAREN EGILEAREN IZENA EZ DUGU EZAGUTZEN,
baina, besteak beste, honelaxe zioen anonimo honek
idatzitako testua:

"...bukatu da bai 2001, ea 2002 urtea hau bezain
ona den..."

*Iritzi honen egileak bulegora dei dezala,
Sarrionaindiaren LAGUN IZOZTUA eskuratu ahal
izateko!

Zorionak!

Jabier Ortiz zutabegilea Gasteizen, Hikaateneon, bere liburua aurkezten

"DIARIO DE UN RESENTIDO SOCIAL", NABIGATZEN DUEN LIBURUA

• Izenburua: Diario de un resentido social • Egilea: Javier Ortiz • Argitaletxea: Talasa Ediciones • Orriak: 222 • Salneurria: 2300 pta.

"Internetek duen abantailarik onena inork ezin zaituela isilarazi da"

La Patera izeneko web-gunea sortu zuen duela urte batzuk Javier Ortiz,
El Mundo egunkariako kazetari donostiarra. Bertan, gai desberdinen
inguruan iritziak helarazten ditu Ortizek eta orria bisitatu dutenen artean
(120.000 lagun inguruk bisitatu dute) lagun taldea
eratu da dagoeneko. Ortizek planteatutako gaien
gainean 250 bat pertsonak aipatu eztabaida gunea
sortu dute, eta kazetariak azaldutakoaren arabera,
jende hori "familia antzeko bat bihurtu da,
Interneten bitartez elkar ezagutu dutenen familia".
Hain justu ere, Interneten argitaratu eztabaidagai
interesgarrienak "Diario de un resentido social"
izeneko liburuan bildu ditu Javier Ortizek.
Gasteizko Hikaateneon aurkeztu zuen azaroaren

22an liburua eta bertan azaldu zuen aukeratutako izenburuaren zergatia:
"Diario, egunero idazten dudana zerbait delako, Resentido ia guztiaren
kontra nagoelako eta Social gizarteari oro har min egiten dioten gauzen
aurka nagoelako".

Liburua egungo teknologia berriei esker sortu dela esan daiteke, izan
ere, Internet bezalako baliabide batek ahalbidetu du
halako liburua ekoiztea. Gauzak horrela, Internetek
dituen abantailez luze mintzatu zen egilea Gasteizko
aurkezpenean. "Internetek duen abantailarik onena
inork ezin zaituela isilarazi da, nahi duzuna esan
dezakezu, besteen gustukoa bada, primeran, bestela,
hor konpon", iritzi zion. Aitzitik, alde txarrak ere
badituela azpimarratu zuen, hots, ez duela dirurik
ematen. Etekinak eman ala ez, Internetek erraz irakur
daitekeen liburu interesgarria eman duela argi dago.



TRAIZIOAK IBAN ZALDUA. Erein argitaletxea

Iban Zalduaren berrogei narrazio
jasotzen ditu liburu honek, batzuk
laburrak, luzeagoak beste batzuk.
Traizioak ezkutatzan dituzte gezu-
rraren itzalean: traizioa Iraultzari,
Aberriari, Memoriari, Errealis-
moari, Literaturari berari. Guztiak azaleratzen dira
obsesioz, mamuz, lagunez eta etsaiez beteriko bildu-
ma honetan. Berrogei traizio, berrogei ipuin.

Iban Zaldúa Gonzalez (Donostia, 1966)

Historialaria, une honetan ekonomi historia irakasten
du Euskal Herriko Unibertsitatean. Gasteizen bizi da.
Beste hiru ipuin liburu argitaratu ditu: Veinte cuen-
tos cortitos (1989), Ipuin euskaldunak (1999, Gerardo
Markuletarekin batera), eta Gezurak, gezurak,
gezurak (2000). Aurki bere bigarren ipuin liburu
argitaratuko du gaztelaniaz: La isla de los antropólo-
gos y otros relatos.



TRAIZIOAK
Iban Zaldúa

erein

OHE BAT OZEANOAREN ERDIAN MIKEL HERNANDEZ ABAITUA. Erein argitaletxea

Nork ez du inoiz fantaseatu ihes egitearekin, dena
utzi, urrutira joan eta hutsetik hastearekin? Eleberri
honetako protagonistarentzat hau ez da fantasia bat
ordea, behar bat baizik. Euskal Herriko egoeraz
aspertuta Italiara doa lan egitera, baina ez da kontu-
ratzen ez dela egoera politiko batetik ihes egiten ari, bere iraganetik bai-
zik. Autopista amaigabea bere bizitzako urteak berrikusten ditu eta
hasierako kanpo-bidaia barne-bidaia bihurtzen da. Bere begien aurretik
pasatzen diren lekuak oroitzapenak berpizteko aitzakiak baino ez dira
izango, porrotak eta garaipenak gogoratzeko elementu eragingarriak.

Mikel Hernandez Abaitua Gasteizen jaio zen 1959an. Euskal Filologian
lizentziatua da eta Bigarren Hezkuntzako katedratikoa. 1981ean
Donostia Hiria ipuin saria irabazi zuen eta horrekin hasi zen bere ibilbi-
dea euskal literaturan. Hauek dira orain arte argitaratutako liburuak:
Panpinen erreinua (ipuinak, 1983), Ispiluak (ipuinak, 1985), Etorriko
haiz nirekin? (eleberria, 1991) eta Bazko arrautzak (ipuinak, 1995).



OHE BAT OZEANOAREN ERDIAN
Mikel Hernandez Abaitua

erein

"the balde" aldizkaria kalean!

- Euskal Herri osoan zabalduko den aldizkari berria
- euskaraz eta ingelesez idatzia
- gazteei zuzendurikoa: moda, artea, musika, zinema, literatura, Internet, bideo-jokoak...
- itxura berritzailea, diseinua oinarri
- bi hilabetez behin kaleratuko
- Nola eskuratu:



*doan: gazte jendea ibiltzen den lekue-
tan (arropa dendarak, musika dendarak,
liburudendarak, tabernak, kultur etxe-
ak, dantzalekuak, zinemak, tatoo-pier-
cing dendarak...).

*harpidetza: 9 euro

Webgunea: www.thebalde.net

Telefonoa: 948121976

Helbidea: Martzelo Zelaieta 75,
13. Bulegoa. Iruñea.

DISKOAK - DISKOAK - DISKOAK

OSKORRI GASTEIZEN

"Antzinako problemak eta gaurkoak ez dira
arunt diferente"



Josune Velez de Mendizabal

Vizcayatik Bizkaiara da Oskorri kaleratu duen azken diskoaren izen-
burua, bertan Xabier Amurizak aukeratutako Bizkaiko kopia zaharrak
abesten dira Kepa Junkera, Eliseo Parra eta Michel Bordeleau-ren
kolaborazioaz. Oskorri taldea bere azken lanaren aurkezpene egite-
ra Gasteiza etorri eta Geu-k aukera izan zuen beraiekin mintzatzeko.
Hona hemen egin nahi genien galdera bakarrak emandakoa:

*Zein helburu du kopia herrikoien bilduma honek? Akaso antzinako eus-
kal ondarea berreskuratzea gaur egun ahaz ez dezagun?

Orain hiru bat urte Xabier Amurizak egindako gonbitea izan da, berak
bi liburu potolo ditu 800 orrietakoa edo, eta han biltzen du Bizkaieraz
egindako poesia herritarra, bertan agertzen diren kantuak anonimoak
nahiz autore ezagunenak dira. Karpeta batean ekarri zigun berak eginda-
ko aukeraketa bat ea horren inguruan disko bat egingo ote genuen.
Denbora honetan lantzen egon gara eta kantuekin enamoratu egin gara,
ikusitako oso kantu atipikoak direla, ez dira normalean euskal kan-
tutegian agertzen direnak, oso kantu zorrotzak, satirikoak..., jende xehe-
ak idatzitakoak, ezer ez galtzeko dutenen bizimodua erretratatzen dute-
nak, xurruteroak, herriko alferrak, eskekoak...; hortaz, oso kantu bere-
ziak, oso umore berezi batekoak dira.

Konturatu gara nahiz eta orain dela ehun urteko kantuak izan, gaur
egungo problemak oso modu bereziaz ere erretratatuak daudela, hau da,
antzinako problemak eta gaurkoak ez dira arunt diferente. Orduan, nahiz
eta antzinako kantuak izan pentsatzen dugu disko honek baduela egungo
balio bat, eta halaxe egin diogu aurre: gaur egungo moduetara prestatu
nahi izan ditugu kantak.

Espektakuluari dagokionez, hiru aktoreekin prestatu dugu, oso espek-
takulu partehartzailea da, jendeak dantza egin behar du bere eserlekuan,
bakoitzari txiskero bat ematen zaio eta 500 euroko bileteak ere... Oso
polita da, eta bertan kantua eta espektakulua osatzen dira, Durangoko
Feria estreinatuta eta uda arte Euskal Herrian zehar aurkeztuko dugu,
Gasteiza ere etorriko gara.

LABRIT GASTEIZEN,

Nori egin so bere bigarren diskoa aurkeztuz

Edurne Begiristain

- Labrit ez da izen artisti-
koa, 24 urteko neska usur-
bildar baten izena baizik.
Labritek bere burua neska
baikortzat dauka, gauza
guztien alde positiboa ate-
ratzen saiatzen den gaztea,
nahiz eta batzuetan "zail
samarra" egiten zaion.
"Saltsera" da eta animaliak
oso gustuko ditu.

- Hamalau urterekin kon-
posatzen hasi zen, eta 18
urte zituela lehenengo
bakarkako kontzertua
eman zuen, pianoa eta kita-
rra lagun zituela. Bide
Ertzean taldeko kide batek
ikusitako gustatu eta haien bi diskotan parte hartu zuen.
Bere lehenengo diskoa iaz grabatu zuen eta aurre-
kaleratu du bere bigarren lana.

- Disko berria definigarria ez dela iritzi dio Labritek.
"Sentsaziozkoa, sentimendu askokoa" dela baino ez
du nabarmendu nahi.

- Bere aurreko diskoarekin alderatuta, azken lanean
"gehiago sinisten" duela dio, bere burua hobeto eza-
gutzen duelako eta ondorioz, gehiago transmititzeko
gai delako.

- Gasteiza egindako bisita (abenduen 4an)
"momentu polita" izan zela dio eta jendearen harrera
ona azpimarratu.

- GEUko irakurleen-
tzat 10 CD gomenda-
tzeko eskatu genion,
baina azkenaldian mu-
sikaririk ez duela entzu-
ten ezta erosten ere
aitortu zuen. Hortaz,
gogoko musikari bi
aipatu zizkigun: Kylie
Minogue eta Rupert
Ordorika.



Arg.: k.f.b.



NON BAIT

ZURE
EUSKAL
DENDAK

Kamisetak: Kukuxumusu, Kot, Maddi, Barabú... **Euskal oihalak:** mantelak, zapiak...

Zeramika, portzelana, zilarra - Opariak eta euskal oroigarriak

Loma Jeneralaren plaza, 5 eta Mateo Moraza, 7

Tel./faxes: 945 232229 • nonbait@nonbait.com

GASTEIZ

BUZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA

**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**

HEDEGILE kalea (Korreria), 120

Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kaxxi), 27

Tfnoa: 945 26 07 10

GASTEIZ

Garagardotegia

Ostiraletik
Igandera
IREKITA
(astelehenetik
ostegunera
itxita)

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

Tfnoa. 945 27 90 46

Herrandarren kalea, 82

Gasteiz



EKO!

arropa eta osagarriak

HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko artzean)

Tfnoa: 945 25 03 52

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!



Unai eta Patxi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefona: 945 26 38 74

**Confecciones
Pinedo**
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ

Tfnoa.: 945 23 39 90

Argazki - Estudioa

Erramun

Heraclio Fournier, 23

Tfnoa: 13 71 02

01006

Askatasun kalea, 5

Tfnoa: 26 19 91

01004

HEGOALDE
Euskaltegia



Matrikula zaitetz !!

Jose Lejarreta 9 behea

Tfnoa 945 28 41 96

01003 GASTEIZ

ARTEPAN



Artisau
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ehunak
eskuz margotuak"

- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa.: 945 13 33 59

Eskola propioaren aldeko ahalegina

Euskal Herriak bere eskola plataforma sinadura bilketa burutzen ari da bere helburuak zabaldu eta atxikimenduak lortzeko. Taldearen izenak dioten bezala, Euskal Herrirako eskola propioa, euskalduna, demokratikoa eta kurrikulum bereziduna aldarrikatzen duen kanpaina da eta otsaila arte iraungo du. Geigi (Gasteizko euskal irakas-kuntzako gune iraunkorra) taldea ari da Arabako hiriburuan Euskal Herri mailakoa den kanpaina egiten.

**Leire Lopez de
Aberasturi**

Gehienbat irakasle, ikasle eta gurasoek osatzen duten plataforma iragan ikasturtean Humanidade Legea aprobatzeko sortutako eztabaidaren harira jaio zen, Madrilgo Gobernuak bultzatutako legearen aurka, alegia. Taldeak arau berriaren aurkako manifestuak idatzi eta ekintzak burutu zituen, jendetsuena 2000ko abenduaren 16an Bilbon milaka lagun bildu zituen manifestazioa izan zelarik. Manifestazioa antolatu eta gero, "aurka jotzea argi zegoen, baina horretan ez geratzeko eta lortutako azpiegitura txikia aprobetxatzeko gure helburuak finkatu behar genituela erabaki genuen", azaldu du Blanca Martinez de San Vicentek, hezkuntza arloko sindikalista eta Geigiko kideak.

Taldeak helburu zabalak definitu zituen bi ardatz nagusiren inguruan: Eskola euskalduna eta kurrikulum propioa, "eta ez Madrildik etorritako testu liburuen itzulpenekin". Helburuak

zehaztearekin batera, plataformaren ezaugarriak ere markatu ziren: Ikuspegi nazionalako elkarte irekia da, hiru estamentuek -irakasle, ikasle eta gurasoek- osatua. Orain arteko partehartzeari buruz, "hasieran eskola publiko eta ikastoletako jendea zegoen taldean" azaldu du Blancak, "baina orain pribatueta lagunak ere badaude".

TOKIAN TOKIKO ERANTZUNAK

Dinamika nazionala bilatzen den arren, tokian tokiko eskola eta ikastolen beharrei erantzuna eman behar zaiela argi du plataformak. "Ez dagoelako inondik inora egoera berdina Gasteizen edo Hernanin", esan du Geigi taldeko Garbiñe Elorriagak. Gasteizko ikastetxeetako beharrei erantzuteko lehenengo egoeraren diagnostia egin behar da, "eta horretan gaude Gasteiz, Araba eta Euskal Herrian", Raul Insagurbe, Geigi-ko arduradunak azaldu duenez.

Araban, Gasteizkoaz gain, Laudion Mugarri taldeak ere lanean dihardu. Horretaz gain, Agurain eta beste herri batzuetan kontaktuak egiten ari dira Geigi-koak bertan taldeak sortu eta bultzatzeko, baina dinamika guztiak bateratzea zaila izango da, bakoitzak bere erritmoa behar



izango duelako. Garbiñek azaldu duenez, "Legutioko eskolako bi irakasle bertako diagnosa burutu dute dagoeneko, ikastetxe bakarra dagoenez ez dute denbora asko behar izan".

Gasteizen diagnosi lanak hilabete batzuk beharko ditu. Egoeraren berri emango duen azterketa burutzeko galdeketa bat proposatu zaie ikastetxeei eta erantzunak emateko modua ez dela guztiz sistematizatu aitortu dute Geigi-koek. "Batuetan eskola kontseiluak erantzuten du, beste batuetan irakasleek, eta guri nortzuk garen eta zer nahi dugun azaltzeko hitzaldiak ematen ditugunean ikasleengana iristea da gehien interesatzen zaiguna".

HAUSNARKETA

Erantzunak jaso eta gero lantzen ari den gaiari buruzko hausnarketa falta dela uste du Blanca Martinez de San Vicentek, "izan ere, galdeketa berdinen barruan batuetan kontrajarriak diren gauzak idatzi dituzte".

Taldeak ez du euskara edo euskal irakaskuntza ereduaren kontrako erasoei erantzutea baztertzen



"hasieran eskola publiko eta ikastole-tako jendea zegoen taldean, baina orain pribatuetako lagunak ere badaude"

"ikasleengana iristea da gehien interesatzen zaiguna"

Adibide moduan, nongo testu liburuak erabiltzen dituzten galdetuta, bertakoak ala Madrilgoak, "askok euskaraz daude-nez bertakoak direla erantzun dute, Estatuko editorialek beraiek egindako itzulpenak direla konturatu barik". Euskararekin gauza bera gertatzen omen da, "hizkuntza lantzen den galdetuta, baietz erantzuten dute eskolak euskaraz ematen dituztelako, baina horrek ez du lantzen denik ziurtatzen".

Ez da epe zehatzik jarri diagnosi lana amaitzeko, "tokian tokiko taldeen erritmoa errespetatu behar delako", baina bukatu eta gero "azpiegitura eta eraikitze lana" egitea da helburua. Egin nahi duten lana zein den ulertzeko Blancak adibide bat jarri du: "Ikastetxe batean gai bati buruzko apunte interesgarriak

egin badituzte eta beste batean horretan hasteko asmoa dutela jakinez gero, biak kontaktuan jarriko ditugu".

Taldeak ez du euskara edo euskal irakaskuntza ereduaren kontrako erasoei erantzutea baztertzen, "helburua ez da hori, baina gure lana ona izan daiteke horien kontra jotzeko, nolabaiteko azpiegitura bat sortzen delako eta errazago erantzuten da gizartean kezka bat dagoenean eta lan bat egin denean".

HERRI MUGIMENDUAREN GARRANTZIA

Euskal Herriak bere eskola kanpainak lau puntutako testua prestatu du sinadura bilketarako. Zehazketaren bat egitekotan, plataformako kideek azken puntua azpimarratzeko beharra adierazi dute, herri mugimendua Euskal Herrian daukagun hezkuntza sistema lortzeko ezinbestekoa izan dela adierazi nahi duelako. "Herri mugimenduari esker sortu dira ikastolak, helduen alfabetatze zentroak, eta abar eta ezin dugu horren garrantzia ahaztu", esan zuen Garbiñe Elorriagak.

- Euskal Herriak bere eskola BEHAR du. Hezkuntzak herri batek aurrera egin dezan garrantzi handia dauka.
- Euskal Herriak bere eskola NAHI du. Herriak euskal hezkuntza sistema propioa izateko borondatea adierazi du.
- Euskal Herriak bere eskola IZATEKO ESKUBIDEA du. Herri batek bertatik diseinatu eta kudeatutako sistema propioa izateko eskubidea dauka.
- Euskal Herria bere eskola ERAIKITZEN ARI DA. Plataformaren antolatzaileek azken puntu horren garrantzia azpimarratu dute: "Oztopo guztien gainetik, Euskal Herriko eskola gauzatzen ari gara ikasle, irakasle, guraso eta herritarrok". Orain arte lortutakoari omenaldia da eta ekinaren ekinez eskuratu daitekeena nabarmendu egiten du laugarren puntuak.

**“herri mugimendua
Euskal Herrian
daukagun
hezkuntza sistema
lortzeko
ezinbestekoa
izan da”**

**“... eta ez Madrildik
etorritako testu
liburuen
itzulpenekin”**



euskal
herriak
bere
eskola

Euskal Herria(k) bere eskola

BEHAR DU

Ikaskuntza eta berrikuntza gizartearen garapenerako motore direlako, hezkuntza Euskal Herriak aurrera egin dezan gogoetako bat delako.

NAHI DU

Jai giroan zein aldarrikapenean, kalean zein ikastetxean, Euskal Herriko irakasle, guraso, ikasle eta herritarrok euskal hezkuntza sistema propioa izateko borondatea adierazi dugu.

IZATEKO ESKUBIDEA DU

Herri bat garen aldetik, hezkuntza sistema bat dagokigu, guk geuk erabakitakoa, guk geuk kudeaturikoa, euskalduna eta aurrerakoa, berritzailea eta demokratikoa. Euskal Herria bere eskola

ERAIKITZEN ARI DA

Herriz herri eta ikastetxez ikastetxe, oztopo guztien gainetik, euskal herriko eskola gauzatzen ari gara eta ekinaren ekinez, ikasle, irakasle, guraso eta herritarrok bat eginik, euskal hezkuntza sistema eskuratu dezakegu.

GASTEIZTARROK urtean
39.121 miloi pezeta
ordaintzen dugu
HONAKO HAUEN MANTENURAKO

ESPAINIAKO ERREGE-ETXEARI 267 miloi pezeta
GERRA MINISTERIOARI 6.459 miloi pezeta
BARNE MINISTERIOARI 4.683 miloi pezeta

Kontzertu Ekonomikoa: MORRONTZA EKONOMIKOA

batasuna

Xabier

taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztogile kalea (KUTXI), 23

vitrales



**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

MIKEL
DELIKA

**BAR
KLAKÉ**



KUTXA, 2
TFNO.
143883
GASTEIZ



"Zure ametsak egia
bihurtzen diren tokia"

IBAIZAR BASERRIA, 4
SOJO-ZOLLO · 01478 ARABA
Tel/Faxa: 945 396 686
www.euskalnet.net/eskutxi
E-Mail: eskutxi@euskalnet.net

MERKURIO-KADMIKOAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK



CEGASA
INTERNATIONAL
ALKALINA

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

ametsak



Kañamo Denda - Grow shop

C/ Herreria nº38 01001 Gasteiz
Tel-Fax: 945 26 46 43

iturrieta



Sagardotegia

BETIKO SUKALDARITZA
INGURU ZORAGARRIAN

OSTEGUNETIK IGANDERA
10.00etatik aurrera

Arraga auzoa.
Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO



IKATZ

FOTOGRAFIA • IMAGEN

www.ikatz.es

IKATZek

ARGAZKI ZORIONTSUAK

ETA URTE BERRI ON

OPA DIZKIZUE

ARABA

(VITORIA-GASTEIZ)

- > dendaraba
- > gorbeia, 44 (gurutze zuri kaleko izkina)
- > *polvorin* zaharra, 9
- > ecocentro. legutioko atea
- > j. m. barandiaran plaza

berria! > consum ariznabarra

berria! > consum simon de anda kalea, 15

berria! > consum: gasteiz hiribidea, 11

MIRANDA DE EBRO

> san agustin 20

2001eko GEU ALDIZKARIAREN HARPIDETZA KANPAINAREN IRABAZLEA



ZORIONAK, ETA SARIAZ GOZATZERA!!!

**SARIA: ASTEBURU OSO BAT ZOLLO-KO
IBAIZAR NEKAZALTURISMOAN BI
LAGUNENTZAT**

M^a ANGELES LOPEZ GARCIA

- NONGOA: Gasteiz
- LANBIDEA: Erizaina Txagorritxun.
- EUSKARA: 9.urratsera arte ikasi du IKAn.
Egun ikasteari utzi behar izan dio denboraz estu eta larri dabilelako. Baina berreskuratzeko asmoa dauka, agian datorren urtean...
- ZENBAT URTE EUSKALDUNTZE PROZESUAN: 4 urte.
- GEU ALDIZKARIA EZAGUTU ZUEN...:
IKAko irakaslearen bitartez. Oso ongi datorkio, euskaraz irakurtzera behartzen baitu bere burua.
- NOLA HARPIDETU?
Harpidetza fitxa betez eta postaz bidaliz.



M^a Angeles Lopez Garcia.

**Eta 2002an zehar aldizkariaren
harpidetza kanpainaren 2. txandari
ekingo diogu, beraz, adi ibili, zozketa
berriak martxan jarriko ditugu-eta.**

**Oraindik Geu aldizkariaren
harpidedun ez zarela...?
ORAIN DUZU AUKERA!!!**

KOZKORTUZ




ESKU
HARTU

KOZKORTUZ BERRIA MARTXAN...

ADI UMEAK

HAU DUZUE ZUEN KONTUTXOETARAKO TXOKO ZUZENA:

- MARRAZKI BAT,
- PROPOSAMENAK BILTZEN DITUEN GUTUNIK,
- OLERKI EDO BERTSO BAT,
- IPUIN BAT,
- ASMAKIZUN BAT,
- ERREZETA BAT,
- KOMIKI BAT,
- ZUEK EGINDAKO ARGAZKI BAT...



...**BIDALI NAHI
DIGUZUELA?**



Edota KOZKORTUZ
irakurtzen duten beste
umeak agurtu, lagun berriak
egin nahi dituzula?

HEMEN DUZUE AUKERA!!!



*Lanekin batera, izen-abizenak eta urteak zehaztu (nahi baduzue zuen argazkia ere bidal dezakezue) eta postaz edo e-postaz igorri, hilaren 15a baino lehen.

Langilearen seme-alabak ere *unibertsitate*

MIREN RODRIGO ARGOTE (Ikaslea)

Ikasleen mugimendua

Euskal ikasleriaren artean bi data aipagarriak dira. Grebarako lehenengo deialdia, azaroaren 14an, Hego Euskal Herrian %90eko erantzuna izan zuelarik. Alderdi ezberdinak izan ziren mugimendu honen bultzatzaileak, hala nola, Unibertsitateko Ezkerra eta Sindicato de Estudiantes.

Gasteizen, manifestaldia goizean izan zen eta beste batzuen artean, Legearen aurkako aldarrikapenak entzun ziren, baita Pilar del Castillo-ren dimisio eskaerak ere.

Azaroaren 28an burutu greba, berriz, Ikasle Abertzaleen eskutik heldu zen. Greba honek ere erantzun zabala izan zuen, 9.000 ikasle inguru elkartu zirelako proposamen honen alde lau probintzietako hiriburuetan. Esatekoa da erantzun handiena magisteritza eskolan eman zela (%100). Greba honen berezitasuna, aldiz, aldarrikapenean zegoen, Unibertsitate Legea kritikatzearaz aparte, eskaera desberdin bat adierazten zelako, hain zuzen ere, Euskal Herriak unibertsitate propioa izateko eskubidea.

Gure hiriburuan Andra Maria Zuriaren plazatik abiatu zen manifestaldia, "LOUari ez, Euskal unibertsitatea gure alternatiba" lelopean. Fakultateak alde batera utziz, Gasteizko

hainbat ikastetxe eta institutu ere lanuzte deialdi honen jarraitzaile izan ziren eta eguerdi aldera paroa egin zuten Mendizabala, Koldo Mitxelena, Mendebalde, Ekialde, Nieves Cano, Arriaga, Ikasbidea eta Molinuevo-n.

Manifestaldietan, hainbat bitxikeria

Mobilizazioak oso jendetsuak izan direla badakigu, baina gaiari arintasuna ematen dioten egoerak ere suertatu dira azken bi hilabeteotan. Galizia aldean gertatutakoak ditugu aipagarrienak, bertakoak izan direlako legearen aurkako mugimendu originalenak burutu dituztenak. Esaterako, ikasle batzuen proposamena aldarrikapenak larru gorritan egitea izan zen; bitartean, beste batzuek, antzerki berezia burutu zuten, ministro anderearen hileta antzetzuz, lore, deabru, zerraldo eta guzti.

Denbora aurrera doa

Baina hasieran esan dugun legez, denbora aurrera doa eta momentuz gelditasuna besterik ez da somatzen. Estatuko fakultate batzuetan denbora luzean daramate klaseak hutsik eta gobernutik aldaketa jarrera ikusten ez den bitartean zaila izango da aurrera egitea.

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
TABERNA
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

XIXILU
JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

EL
BAR
Kutxi
eguneko

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazulatuak
Aiztogile kalea (Kutxi), 33 tfnoa. 945 25 02 39

bar • restaurante
A
albéniz
Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



atera



Zer da L.O.Ua?

PP alderdiak orain dagoen legea (LRU) berriztatzeke atera duen proiektua da. Lege honen bidez gaur eguneko hauta-proba ezabatuko da, baina bi azterketa berri azalduko dira, unibertsitatera sartzeko zailtasuna bikoiztuz.

- Selektibitatea ezabatzerakoan, unibertsitate pribatuei ikasleen hautaketa beraien irizpideen arabera egitea errazten die lege berriak.
- E.H.Un, momentu honetan, ikasle eta langileek duten ordezkaritza maila %40koa da eta lege berriarekin murrizketa nabaria egingo da, portzentajea %30eko kopuruan utziz.
- Unibertsitate pribatuek boto eskubidea izango dute Koordinazio Kontseiluan, kontuan izanik orain arte bakarrik hitza zeukatela. Gainera, ordezkaritza politiko gehiago ere egongo dira bertan.
- Errektoreek botere gehiago hartuko dute. Sufragio unibertsal ponderatuaren bidez aukeratua izango da. Modu honetan, askoz gehiago balio du katedradun baten botoak ikasle batek baino.

Lege berriaren proposamenak hauek izanik, talde desberdinak beraien salaketak egiten hasi dira eta lehenengo manifestaldi eta grebak ere burutu dira dagoeneko bai Estatu bai Euskal Herri mailan.



**Hitza lore izan bedi
gure ezpainenetan,
askatasuna eta bakea
gure buru-bihotzetan!**

Euskal gizarte zibilaren ahotsa Eusko Ikaskuntzan

Eusko Ikaskuntzak azaroaren bukaeran ospatu zuen bere XV. Biltzarra. Donostiako Kursaal Jauregia izan zen ekitaldia egiteko aukeraturiko lekua eta azaroaren 28tik 30 bitartera mundu osotik etorritako ehunka aditu bildu ziren bertan. Biltzarra sei ataletan banatu zen:

- Berrikuntzak Antropologia eta Kultura Ondarearen alorrean.
- Euskal Herria Europa Berrian Geografia, Historia eta Zuzenbidetik ikusita.
- Gizarte Zibilaren ahotsa Euskal Herrian.
- Literatura eta Antzez arteak.
- Arte Plastikoak.
- Ezagueraren gizartea eta Euskal Herria.

Edurne Begiristain

Atal guztien artean gizarte zibilarena izan zen ikusmin eta arrakasta handiena lortu zuena, atal berria izan baitzen. Mikel Insaustik (WWF-Europako Politika Bulegoa-Brusela) koordinatu zuen atala eta hiru egunetan zehar, gizarte mugimenduen iragana, oraina eta geroa aztertu zituzten. Biltzarrean txosten desberdinak aurkeztu zituzten, ekologia, nazioarteko elkartasuna, bazterketaren eta pobrezia-aren aurkako borroka, lan eskubidea eta beste hainbat alorretan dihardutenen ahotsa islatzen zuten txostenak, hain zuzen ere. Iñaki Barcena Ekologistak Martxan taldeko kidea, Jose Allende EHUKo irakaslea, Mario Zubiaga Joxemi Zumalabe Fundazioko partaidea, Txus Congil Asagintzako ordezkaria, izan ziren, besteak beste, lanen ondorioak jendaurrean azaldu zituztenak.

Eztabaidarako parada ere egon zen Biltzarrean, izan ere, goizeko aurkezpenen ondotik, arratsaldean alor desberdinen inguruko tailerrak burutu ziren Miramar Jauregian. Goizeko azalpenetatik eta arratsaldeko eztabaidetatik ondorio

Digitaraua
Programa
Programme

XV CONGRESO DE ESTUDIOS VASCOS

L ZIENTZIA ETA KULTURA, ETA SARE TELEMATIKOAK
Y CULTURA VASCA, Y REDES TELEMÁTICAS
ET CULTURE BASQUE, ET RÉSEAUX TÉLÉMA

Donostián, Iruñea-Pamplona, Ba



"Euskal Zientzia eta Kultura, eta Sare
Donostia Azaroa 28-30 de Noviembr

orokorrak atera ziren, horiek azken egunean aurkeztu zirelarik. Herri mugimenduek egungo eredu ekonomiko eta sozialari kritika gogorra egin eta gizarte aldaketaren beharrezkoa dela azpimarratu zuten. Aitzitik, etorkizunean aldaketak nola egin behar den eta nora joan nahi den ez zen oso argi geratu. Baina bai, ordea, eraldaketak erdiesteko tokian tokiko ekintzek herri mugimenduentzat lehentasuna dutela.

Bestalde, nabarmentzekoa izan zen egungo demokrazia partehartzaileari egingandako kritika, gizarte zibilak egungo sisteman parte hartzeko dituen aukerak eskasak baitira. Ildo horretan, gizarte zibilaren eskuhartzea bermatzeko instituzioek borondaterik ez dutela ondorioztatu zen Biltzarrean.

Giza eta gizarte eskubideei dagokienez, guztiek bat egin zuten esaterakoan bazterketa eta pobrezia direla giza eskubideen urraketa islarik nabarmenena. Eta horren haritik, eskubide horiek bete daitezela benetako bitartekoak egotea ezinbestekotzat jo zuten.



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



eusko
alkartasuna

www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI



www.gazteabertzaleak.com



ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

• Edurne Beitia, KMko zuzendaria • Jon Juaristi, irakaslea • Kepa Izaga, KMko zuzendaria

“Ikasle mota guztiei laguntza eta erantzun baliagarriak emateko prestatuta gaude”

Ainhoa Ferron

BENETAN LORTZEN AL DUZUE EGUNEZ EGUN INSTITUTUAREN PROIEKTUA AURRE-RA ERAMATEA?

Edurne: Bai, hala akademikoki nola giza-harremanen aldetik, emaitza politak lortzen ari garela uste dugu. Ikasle kopuru txikia dugu eta horrek irakasleone eta ikasleen arteko harremana gertukoa izan dadila laguntzen du. Eta hori da nahi duguna: ikasleen ondoan egon, kezkatu, ezagutu eta arazoak suertatzen direnean horietatik ikasi, bai beraiek eta baita guk ere. Datu bat ematearren, 520 ikasle dira ikastetxean eta 71 irakasle gaude; horrek behar duten arreta eskaini diezakegula esan nahi du. Noski, horrek hemen atera behar duten titulu hori lortzen laguntzen die, dudarik gabe.

Jon: Institutua ikasleak “inor” ez diren eta estudiatzera doazen toki bat besterik izaterik ez dugu nahi. Gainera, hemen pasatzen dituzten urte horiek euren bizitzako bizipen garrantzitsua izango badira, ahal den neurrian esperientzia hori positiboa izan dadin



eta, batez ere, euskaraz bizi dezaten nahi dugu. Eta hau ikastetxe barruko harremanetan behintzat, guztiz bermatua dago.

NOLA EGIN DIO IKASTETXEAK AURRE-ERREFORMARI?

Jon: Hasieran, guztiek bezala, gaindituta ikusi genuen geure burua. Ez genekien nola aurre egin. Hasierako ikasturteak ez ziren errazak izan. Baina orain egokitze prozesu hori amaitutzat jotzen dugu. Talde malguei eta ikasle-irakasle proportzioari

esker, guri eta ikasleoi gauzak errazago jartzen dizkiguten talde txikiak egin ditzakegu.

Kepa: Gaur egun ez dugu 15 pertona baino gehiagoko talderik eta bai, ordea, ondo hornitutako azpiegitura, alor akademikoan zein zentzu fisikoenan. Ez dugu masifikazio arazorik eta, horregatik, datozen urteei begira, baikor gara.

IKASTETXEKO HIZKUNTZA IZATEAZ GAINERA, NOLA BULTZATZEN DUZUE EUSKAREN ERABILERA?

PROIEKTUA

EGUNEAN-EGUNEAN BIZITZEN IKASTEN DUGU ELKARREKIN


Koldo Mitxelenan ikasten den lehen gauza da euskara Euskal Herriko ezaugarriarik behinena dela. Horregatik, mundu zabalean hainbat kultura galtzeko arriskuan dauden garaiotan buru-belarri jarduten gara gure hizkuntza berreskuratzeke asmoz. **Euskaltasunetik** begiratzten diogu munduari.

Izan ere, adi egoten begira gara, ez baitugu nahi bakarturik egon ikasgela bateko pareten artean. Hortaz, sarritan **mundua bera ekartzen dugu ikastetxera** haren bazterretako berri jakiteko, gatazkak eta katramilak aztertu **begi zorrotzez**, eta lezio garrantzizko bat ikastearren, hau da, **Herri eta gizaki guztiak berdinak direla duintasunaren aldetik**. Atera ere ateratzen gara institututik, zeren guretzat irteerak eta txangoak ez baitaitezke izan klase galtzea.

Neska-mutil arduratsuak nahi ditugunez

erantzukizuna euren gain hartzeko moduan tratatzen ditugu. Nagusikeriarik gabeko **harreman gertuko eta bizi-biziak** nahi genituzke ikasle-irakasleen artean. Gainera institutua **txikia** izatea gure alde dugu harreman horiek bideratzeko. Elkarbizitzan gertatzen diren **arazoak**, berriz, **heitzeko aukera ezin hobeak** bihurtzen zaizkigu geure hezitzaile ikuspegitik. Berehalaxe ohartzen dira ikasleak gure ikastetxean badutela zer esanik, aintzakotzat hartzen ditugula eta ikasketetan eurak direla **protagonistak**. Pozik etortzen direla esatera ausartzen gara.

Askotarikoak dira gure ikasleak, izaez bezala pentsakeraz, eta ikasteko gaitasunari dagokionez ere bai. Beraz, beraiek behar dutenetik abiatzea da gure jokabidea eta ikasketa prozesua ongi bururatzeko baditugu baliabide pedagogikoak.



Kepa: Hainbat jarduera burutzen ditugu. Ikasleek osatutako euskara batzordeek ikasturtean zehar dinamika desberdinak egiten dituzte, adibidez azkenengoetariko bat euskararen erabileraren neurketa bat izan da. Gainera, talde guztiek irteerak egiten dituzte, elkarbizitza euskalduna lantzeko asmoz, eta bestaldetik ere, kanpoko jendea ekartzen dugu: unibertsitatean dauden ikasle ohiak, idazleak eta, oro har, arlo desberdinetako pertsona esanguratsuak, euskaraz nola bizi direneko testigantza eman dezaten.

ZER ESANGO ZENIOKETE ZEIN INSTITUTU HAUTATU ERABAKI BEHAR DUEN GAZTEARI?

Edu: Hemen titulua lortu ahal izateko baliabide guztiak bere esku izango dituela. Dibertsifikazio taldeekin lan egiten dugunez, bere erritmo propioa aukeratu ahal eta irakasleon laguntza osoa izango duela. Hori, noski, giro euskaldun eta atsegin batek lagunduta, non betiere bere kezak eta asmoak kontuan hartuak izango diren.



HAMAIIKA IKASTURTE ATZETIK, HAMAIIKA ILUSIO AURRETIK (1999ko abenduan idatzia)

Esan egiten zuten batzuen batzuek hain aspaldi ez dela: alegia, etxetik gaztelania soilik ikasitako haurrak ezin zitezkeela D ereduan eskolatu, bestela porrot egingo zutela, trauma eta guzti. Erabat nahastuko zituztela ume gizarajoak. Zentzugabekotzat jo zituzten guraso haiek ez ziren, ordea, erraz etsitzen duten horietakoak, ez horratik! Euren seme-alabak euskaraz heztea lortu zuten eta bidea urratu. Bejondeiela!

Eskola publikoan irakas-maila ertainean ikasketak euskaraz burutu ahal izatearen alde hainbat euskaltzalek egin zuten aldarrikapenaren ondorioz, 1988/89 ikasturtean Koldo Mitxelena institutua abian jarri zen. Harrez gero, neska-mutil ugari pasa dira bertoko ikasgeletatik, familia erdaldunetakoak gehien-gehienak, eta euskaraz egin dituzte ezin konta ahala azterketa, txosten edo idazlan; txuleta ere ez gutxi, seguru. Euskaraz entzun dituzte irakasleak azalpenak, errieta eta animo-hitzak. Euskararekin ikasten dute Koldo Mitxelenan. Ahotik ahora!

Begira-begira egon ziren batzuen batzuk Kmko lehen promozioiko neska-mutil haiek UBI gaingituta Hauta-probako etsamina egin behar izan zuten hartan. Iragarritako porrot akademikoaren frogak begi-bistan agertuko zirelakoan, inondik ere. Baina emaitzek uxatu egin zituzten zalantzak. % 100ak pasa zuen proba, eta notak inongo ikastetxeen inbidiatan ez egoteko modukoak. Zorionak! Gerotik emaitza onei eutsi diegu, izan ere zerbaiteko balio behar dute egunean-egunean egiten ditugun ahaleginek.

Gure institutua ahotan dutela, esamesak eta juzku txarrak barreiatzen dituzte hortik zehar batzuen batzuek. Ikasleak hezikaitzak ote diren aditu da hor, pentsaera jakin batekoentzako tokia ote den aipatu da hemen... Ezetz bada! Gure lan eta eginahalak ikastetxean jarduten garen guzti-guztiok gustura egon gaitezen izaten dira, betiere lagunekiko errespetua funtsezko ikasgaitzat hartzen dugula. Zirt-zart esan dezagun, Kmko ikasle-jendea beti izan da jator-jatorra, aizue! (...)

KOLDO MITXELENA INSTITUTUA

Hauxe da gure eskaintza:

- D eredua
- Jantokia eta garraioa
- Beharrezkoak diren instalazio guztiak
- Jarduera osagarriak
- Eskolaz kanpoko jarduerak (hainbat kirol -tenis, aerobic,...- eta kulturazkoak: -bertsolaritza, antzerkia,...-)
- Aniztasunari erantzun pedagogikoak emateko baliabideak:
 - Errefortzuak
 - Talde malguak
 - Curriculum desberdineko taldeak
 - Gela egonkorra
- DBHO:
 - Batxilergoak
 - Natur eta osasun zientzien arlokoa. Bi aukera:
 - Zientzia eta teknika arloa (karrera eta heziketa ziklo teknikoak ikastekotan)
 - Natur eta osasun arloa
 - Giza eta gizarte zientzien arlokoa
 - Gorputz eta Kirol jardueren arloko heziketa zikloak:
 - Goi mailakoa: 2000 ordu
 - Erdi mailakoa: 1400 ordu

GURE IKASLEAK HONELAKOAK IZATEA NAHI GENUKE:

- ✓ Liburu, film edo margolan eder batekin gozatzeko gai.
- ✓ Telebistak dioena itsu-itsuan sinetsi gabe beren irizpidez interpretatzen dakitenak.
- ✓ Euskaraz zein gaztelaniaz ongi dakitenak
- ✓ Bere burua maitatzen ikasi dutenak.
- ✓ Eurentzako nahi ez dutena beste inori opa ez diotenak.
- ✓ Zereginak beren kabuz ondo antolatzen dituztenak, inoren aginduren zain egon gabe.

... eta, noski, lanean hasi zein edozein ikasketari ekiteko ederki prestatuak daudenak.

Ikasle ohiekin topo egiten dugunean barrezka aritzen gara garai bateko pasadizoak oroitzen ditugun bitartean, eta inortxok ere oroitzapen txarrik ez duelako poztzen gara. Izan ere, gazte zintzo eta euskaldunak dira eta horrexegatik gaude harro-harro Koldo Mitxelenan.

KOLDO MITXELENA INSTITUTUA



Euskararen aldeko apustu tinkoa egin du atzera Diocesanask-ek ikasturte berrirako

Lanbide Heziketako ikasleek euskaraz ikasteko parada izango dute aurten Diocesanask ikastetxean. Izan ere, iaz bezalaxe, bi modulu euskaraz irakatsiko dituzte zentro honetan: Mekanizazioa (Diocesanask-Nieves Canon) eta Administrazio eta Finantzak (Diocesanask-Molinuevon). Iragan hilean, GEU euskararen normalizazioaren aldeko apustu honen bultzatzaileekin bildu zen, alegia, Arriaga eta Molinuevo zentroetako zuzendariak Iñaki Resa eta Oskar Pedrosarekin eta Arriagako ikasburu Jose Ventura Jauregirekin.

Eduarne Begiristain

Ikastetxeetako buruek adierazi zigutenez, eskolak euskaraz eskaintzeko ekimenak "nahiko harrera ona" izan du orain artean. Hala, Arriagan, esaterako hasieran taldeak txikiak ziren arren (15-16 ikasle), egun 30 bat ikasle biltzea lortu dute. Molinuevon, berriz, zailagoa dute ikasleak euskarazko klaseetara apuntatzea, izan ere, bertan lehiakide zuzenak dituzte, Jesus Obrero eta Koldo Mitxelena, hain justu ere. Aitzitik, argi asko dago euskarazko eskaintzak fruitu onak eman dituela, eta datuei erreparatzea baino ez da egin behar: DBHn euskarazko 16 talde dituzte, hamabi Arriagan eta lau Nieves Canon, talde bakoitzean 30 bat lagun daudelarik. Batxilergoan, berriz, D ereduko bi talde dituzte, 15 ikaslekoa bakoitza, Zientzietako klase bat Molinuevon eta Teknologia beste bat Nieves Canon. Iñaki Resak adierazi zigunez, 2002-2003 ikasturtetarako saiaturko dira DBHn duten eskaintza mantentzen, eta Batxilergoan eskaintza handitzea nahi-

ko lukete, alegia, zentro guztietan D ereduko talde bat egitea.

IRAKASKUNTZA HIRUELEDUNA

Lanbide Heziketa euskaraz irakastea erronka handia bada ere, are eta handiagoa da hirueleduna. Diocesanask-Molinuevon Administrazio eta Finantzak euskaraz, gaztelaraz eta ingelesez eskaintzen dute, nahiz eta jende gutxi eman duen izena. Hala ere, Oskar Pedrosak hiru hizkuntzetan ematearen garrantzia azpimarratu zuen, izan ere haren hitzetan, "globalizazioaren munduan gaztelera eta euskaraz aparte, ikasleak ingeleza ere menperatu behako luke, Interneten ibiltzeko edota lan egiteko behar-beharrezkoa baita". Dena dela, onartu zuen klase hirueledunak eman ahal izateko ikasleek baldintza bat bete behar dutela, hots, euskara eta ingeleza oso ongi menperatzea,

eta horietako bat primeran. Gisa horretako klaseak abian jarri aurretik bi edo hiru astez murgiltze sistema egitea pentsatu zuten, ikasleek hizkuntza azkarrago ikas zezaten. Baina, tamalez, oso jende gutxi matrikulatu da klase hirueledunetara, eta momentuz ezin izango dute halakorik eskaini. Hori bai, hiru zentroetako buruek azpimarratu zuten gisa horretako irakaskuntza Araban eskaini duen aurreneko ikastetxea izan dela Diocesanask.

ETORKIZUNARI BAIKOR BEGIRA

Matrikulazio kanpaina hemendik gutxi-ira izango dela kontuan hartuta, dituzten aurreikuspenen inguruan galdetu genien zuzendariari. Adierazi zutenez, helburua da ikasleen talde erdia euskaraz ikastea. Jakin badakite lan zaila dela, baina horretan buru-belarri ari direla aitortu ziguten. "Euskararen normalizazioa lortzeko baliabide guztiak jartzen ari gara", azaldu zigun Iñaki Resak, eta etorkizunari begira "baikor" direla gaineratu.

Hain justu ere, euskararen normalizazioaren aldeko lan horretan etorkizunean beste ikasgai batzuk euskaraz emateko asmoa dutela adierazi ziguten: Heziketa Jarraituko ikastaro tekniko bat, alegia. Hortaz, Lanbide Heziketa euskaraz egin nahi duenak ez du aitzakiarik, Diocesanask-ek aukera paregabea eskaintzen baitu. **Ikastetxe honen inguruko informazio gehiago eskuratu nahi izanez gero, bere web orrian sar zaitetzte: www.diocesanask.org**

Eta adi otsailari, matrikulazio kanpaina irekiko baitute!



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis

GARMENDIA

HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13

☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

XABIER AIZPEOLEA

HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3

☎ 945 13 24 48

ABASTOS AZOKA 2 eta 3

☎ 945 26 78 97

*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



Zure denda erotikoa

SEX

PITILIN GORRI

Sexua
euskaraz
bizi



GASTEIZ

Tren geltokiaren ondoan

Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA

OIARTZUN

adaka
madinabeitia

Floridako altxorra !

35


I 999tik mundutik bizikletaz bidaiatzen dabilen abenturazale gasteiztarra, ZEELANDA BERRITIK

Gogoan al duzue Eneko Etxebarrieta gasteiztarra? 1999ko otsailean bizikleta hartu eta teoriaraz Europan zeharreko urtebeteko bidaia izango zenari ekin zion... Eta oraindik ez da itzuli, Europa ibiltzeko hasierako helburua, gainera, atzean utziz... Hona hemen, beraz, orain arte ibilitakoa: Gasteiz, Marseilla, Korsika, Italiako penintsula, Sardinia, Sizilia, Slovenija, Istanbul, Iran, Pakistan, India, Indotxina (Thailandia; Bangkok), Txina, Tibet, Mongolia, Korea, Japonia, Kanbodia, Vietnam, Malasia... Indonesia...Australia, Zeelanda Berria... Eta hortik, Amerikara!!!



sumendiak, inurri
erraldoiak, paisaje
bitxiak, tenpluak,
gizakia, bangkok,
hong-kong,
emakumearen egoe-
ra, natura, ekaitza,
atsedena, animaliak,
umeak...

...bidaia



BERE BIDAIA JARRAITZEKO: www.enekoetxe.com

“Hemen arratsaldeko zortziak dira, planetaren beste puntan nago, antipode-tan hain zuzen ere, hamabi orduko diferentzia dago hemen eta Euskal Herria bitartean, beraz, hor goizeko zortziak izango dira”, hitz hauekin Eneko Etxebarrietak gure burua kokatzen laguntzen zigun azaroan posta elektroniko bidez bere bidaiaren nondik norakoez galdetzen genionean. Orduetik bere web-orria eguneratu du eta bertan irakur daiteke 40.000 kilometro inguru egin dituela bere abentura trebea hasi zuenetik, orain kasik hiru urte. Txirrindula, mundua ezagutzeko gogoia eta kemena besterik ez ditu behar izan gasteiztar honek bere bizitzako egitasmoa den hau abian jartzeko.

Josune Velez de Mendizabal

Argazkiak: Eneko Etxebarrieta

-ENKO, ZUREA ETA “TXAPELA BURAN IBILI MUNDUAN” DIOEN ESAERA BAT DATOZ...

-Egia esan, bai, gutxinaka-gutxinaka eta nahi ez duena bezala..., hori da bidaiatzearen filosofia, txirrindula batek eta gauza gutxi batzuek ahalbidetzen baitigute pazientzi-az planeta osoa ezagutzea, gure planeta.

-SINGAPUR, INDONESIA, (...) ETA AUSTRALIAN ERE EGON ZARA, IZAN ERE, AUSTRALIAKO BASAMORTUKO 4.000 KILOMETRO GURUTZATU DITUZU..., NOLA?, TXIRRINGA ETA HAREA BATERAGARRIAK AL DIRA?

-Basamortuari buruz hitz egiten dugunean estereotipoa datorkigu burura, hau da, eguzkia, dunak, ispilatzeak..., baina Australiako basamortu erraldoi honetan baldintzak zeharo alda daitezke. Izan ere, bertan basamortua erditik banatzen duen errepide itzela dago, beraz, ez da beharrezkoa hareatik joatea, bakarrik kanpatzerakoan sartzen zara harearekin kontaktuan. Baina egia da 50 kiloko txirringa bat hareatik bultzatzea ez dela batere erraza...

-KASU HONETAN NOLA EGITEN DUZU PLANGINTZA? EKIPAMENDU GUZTIA AL DARAMAZU GAINEAN?

-Ura eta janaria aurkitzean datza problema nagusia, egun askotarako

aurreikusi behar baita eta, hau dela eta, txirringa zamaz gainezka doa. Bestetik, informazioa lortzeko, gidetatik aparte, bidaiari zurekin gurutzatzen diren beste bidaiariengandik ere jasotzen duzu. Planifikatzeko orduan, beraz, egotira aurreikusi eta betiere gutxienekoa gainean eraman.


-HONEZKERO, IRONMAN (“BURDINGIZONA”) BATAIATUA IZANGO ZARA...

-Hobe esanda, ironhead (“burdinburua”), burugogorra bainaiz... Baina, zalantzarik gabe, inportante-ena burua da, buruak egon behar baitu indartsu. Gorputza da buruari jarraitzen diona eta, egia esateko, nire gorputza ere pozik dago; nire txakurra gogorazten dit, beti eskatzen du kanpora irtetea eta menditik leher eginda datorrenean zoriontsua da.

**“...txirrindula batek
eta gauza gutxi
batzuek ahal-
bidetzen digute
pazientzi-az planeta
osoa ezagutzea”**



BERE BIDAIA JARRAITZEKO: www.enekoetxe.com



**-BIDAIARI EGIN BAINO LEHEN JADA TXIR-
RINDUZALEA AL ZINEN ZU?**

-Ez, Gasteiztik txirringaz nenbilen baina hori besterik ez. Prestakuntza pixkanaka-pixkanaka zoaz lantzen, kontuan izan hau ez dela inolaz ere lasterketa bat eta horregatik erritmoa, gero eta gogorragoa, zuk markatzen duzu.

-EGON ZAREN LURRALDEETATIK ZEINETAN ERABILTZEN DA GEHIEN TXIRRINDULA? ETA ZURE EGOERAK NON SORTU DU HARRIDURA HANDIENA?

-Asiako hego-mendebaldean batez ere. Baina egia da hango jendearentzat guiri bat txirringaz ikustea harrigarria dela. Eurentzat txirrindula txirotasunaren islada da, ahal duenak motorra erosten baitu. Baina badira lekuak non jendeak mendebaldarrak egoera horretan ikusi ez dituen, hala nola Tibetean; hemen umeak kalez kale nire atzetik zetozen, zirkoa heldu berria baitizan sentitzen nintzen..., oso dibertigarria!

-DENBORA ASKO DA ETXETIK KANPO EGON ZARENA ETA HERRIMINA IZANGO DUZULA IMAJINA DEZAKET... ZURE

ADISKIDE ETA SENIDEEI BISITAN JOATEA OTU ZAIE?

-Herrimina izatea nahitaezkoa da. Beraiekin hitz egiten dudanean ez larritzeko esaten didate eta han utzi dudana ez denez aldatuko aurrera jarraitzera animatzen naute, egiten ari naizena egunero egiteko aukera ez dagoela... Baina noski nire inguruko jendea faltan botatzen dudala! Nire anaia Asier Istanbulera etorri zen eta Endika Koreara. Amerikara joaten naizenerako adiskideek hitz eman didate bisitan etorriko direla,

baita gurasoek ere.

**-BIZITZEKO TOKIAK EZAGUTZEKO GAI-
NONTZEKOOK BAINO AUKERA HANDIA-
GOA IZAN DUZU, HORTAZ, EZAGUTU ETA
EGON ZAREN TOKIETATIK ZEIN DUZU
BEREZIKI GUSTUKO?**

-Asko, eta zerrenda amaigabea lizateke..., baina egia esateko etxean bezain ondo... Euskal Herrian oso ondo bizi ohi da, baina hori besterik ikusten ez dugunean azkenean monotoniaren ondoan egiten dugu aurrera.

EUSKALDUNAK ZOROEN PARE?

"Ezagarri honetako bidaiari ekitea zaila izan daiteke, baina menderatzen baduzu jasoko dituzun esperientziak gaindiezinak izango dira. Australia erdian Xabi eta bere bikotea den neska zeelandarrarekin topo egin nuen, Tolosara bueltatzen ziren presa gabe ibilbideaz disfrutatzen. Sydney-n Lontxorekin topatu naiz, beste gasteiztar bat, zeina Amerika ikusi eta gero etxera bueltatzen den Asiatik, justu ni egiten ari naizen kontrako bidetik. Zoroak hainbat gara eta elkartzen garenean oso ondo pasatzen dugu, hizkuntza bera hitz egiten baitugu."

BERE BIDAIA JARRAITZEKO: www.enekoetxe.com

-LURRALDE BERRIAK ETA LEKU EZBERDINAK, GAIXOTASUNA ARERIO... NOLA EGIN DUZU TXERTOAK HARTZEKO?

-Ez dut bat ere jarri, hasieran Europatik irtetea nire asmoa ez zelako, eta geroago ez nuelako txertoen ondorioa jasan nahi txirringan nihoala. Dena den, astiro-astiro bidaiatzeak gaixotasunetatik babesten du gorputza, izan ere lurralde nahiz gaixotasunei egokitzen da gorputza denboraren poderioz, gainera kirola egiteak osasuntsu mantentzen zaitu.

-EGOERA LARRIETAN AURKITU DUZU ZURE BURUA: GAIXOTASUNAK, LURRIKARAK, EKAITZAK...?

-Bai noski, denetatik, baina betiere aurrera eginiez. Lehen aipatzen nuena, ironhead...

-ZELAKO HARRERA EGITEN DIZU JENDEAK MUNDUTIK TXIRRINGAZ ZABILTZALA JAKITEAN? ORAIN ARTEAN JENDEA NON IZAN DA SOLIDARIOAGOA?

-Orokorrean harrera oso ona izan da, baina batez ere Asian. Bertako jendea oso eskuzabala da eta zentzu honetan txirringak laguntzen du, zeren zaratarik egin gabe heltzeaz gain, esfortzu bat egiten ari zarela ere baloratzen dute hangoek. Konturatu naiz solidarioena ezer ez duen jendea dela. Askok duenak galtzeko arriskua dauka, antza, horretarako daude sarriak... Asiako etxe askotan ez dago sarriarik, ez baitira ezer galtzearen beldur.

"Konturatu naiz solidarioena ezer ez duen jendea dela"

-BUELTAN ZAILA IZANGO ZAIZU GELDI EGOTEA, EZ DUZU USTE?

-Izan daiteke, ez dakit, gauza da familia eta lagunekin elkartzea "la hostia" izango dela, ez daukat zalantzarik. Gero, izan daiteke "olagarro bat garaje batean bezala" sentitzea, horretarako kirol asko eta mendira irtenaldiak egingo ditut. Etxera heltzen naizenerako egitasmoak berriz hastera lagunduko dit, izan ere, bidaiarekin zerikusia baitu geroak: milaka argazki antolatzea, diapositiba emanaldiak, hitzal-diak...

-AZKENENGO GALDERA DERRIGORTUA DA ENEKO, IZAN ERE, XXI. MENDEKO KRISI LARRIENAREN -EEBBEN AURKAKO ERASOA, ONDOREN EEBBEK AFGANISTANEN KONTRA HASITAKO GERRA...- BERRIA NON JASO ZENUEN ZUK?

-Alice Springs-en nengoen orduan, Australiako erdigunearen hiri batean, egun askotan ez nuen gertatzen ari zenaren inguruko berririk izan... Oraindik ere gertatutakoaren irudirik ez dut telebistatik ikusi.



***Enekoren abenturak eskatzen duen tarteak eskatzen duela ale osoko orriekin ere ez genuke nahikoa izango. Dena den, gasteiztarak www.enekoetxe.com den web-orria osatu du eta bertan bere bidaiak gehiago irakurri ahal izango duzue, baita argazkiak ikusi eta berarekin harremanetan jarri ere. Gonbidatzen zaituztegu bertan nabigatzera, ikaragarria benetan!**



ZERBAIT GEHIAGO

EMAIZI
Sexologia Elkarte

MASTURBAZIOARI BURUZ

**“ASTEAN GUTXIENEZ
HIRU ALDIZ MASTUR-
BATZEN NAIZ HAMA-
BOST URTE NITUENE-
TIK; ORAIN HEME-
ZORTZI DITUT. NIRE
OSASUNERAKO KALTE-
GARRIA IZAN DAITEKE-
ELA ESAN DIDATE. OSO
LARRITUTA NAGO.”**

**“HAMAHIRU URTEKO
SEME BAT DUT.
MASTURBATU EGITEN
DELA BADAKIT. EZ AL
DA GOIZEGI HASI?”**

**“BIKOTEA DUDAN
ARREN ETA BERAREKIN
OSO ONDO PASATZEN
DUDAN ARREN, MAS-
TURBATZEA ERE ATSE-
GIN DUT. ZER EGIN
DEZAKET?”**

**“GAZTETAN ASKO
MASTURBATUZ GERO,
GERO INPOTENTZIA-
ARAZOAK IZATEKO
ARRISKURIK AL
DAGO?”**

**“MUTILEK LASAI ESA-
TEN DUTE MASTURBA-
TU EGITEN DIRELA,
NESKEK ORDEA EZ.
ZERGATIK?”**

**“ORAIN EZ NAIZ MAS-
TURBATZEN. LEHEN
ASKOTAN MASTURBAT-
ZEN NINTZEN, BAINA
ORAIN EZ NAU KITZI-
KATZEN. ANORMALA
OTE NAIZ?”**

Gure sexualitatea adierazteko eta bizi-
tzeko modu bat geure buruarekin
gozatzea da. Estimulazioaren bidez,
gure gorputza ukituz, alua, klitoria edo zakila
igurtziz, plazerra lortzen dugu. Hori ez da
inork ezarritako zerbait eta ez dute neska-mutil
guztiekin egin behar. Erabaki pertsonala da eta
nahi duenak egin dezake. Neska-mutil askok
ez dute masturbatzeko beharra sentitzen.
Behin-behineko egoera izan daiteke eta agian
aurrerago esperimentatu nahi izango dute, edo
beharbada ez dute inoiz egingo, zer den ez
dakitelako edo beldur direlako.

Urte askotan masturbazioa gauza izugarria
zela esan izan digute. Masturbazioak sor zitza-
keen gaitzez edo ondorio moralez gain, ondo-
rio tragikoak zituen eta aknea, antzutasuna,
itsutasuna eta burusoiltasuna sortzen zituen.

Gaur egun eta pikorrek itsutasuna ordezkatu
zuten etapa bat igaro ondoren, mehatxu arris-
kutsuagoak sortu dira, mito desberdinen bidez:
nahaste psikologikoak eragiten dituela diote;
hauen arabera, masturbazioa nerabezaroan
logikoa eta ulergarria da, baina heldutasunean
praktikatzeak, eta are gehiago bikotea dugune-
an, heldutasun falta adierazten du eta beste
pertsonarekin komunikazio falta dagoela esan
nahi du.

Ikerketa asko adierazpen horren aurka agertu
dira, ordea, gaur egun autoerotismoa praktika
baliagarria dela onartzen baita eta gizonek
nahiz emakumeek plazerra eta asetasun perso-
nala lortzeko erabiltzen dute; tentsio fisikoak
eta antsietatea botatzeko ere baliabide egokia
da. Horrekin guztiarekin batera, masturbazioa
elementu paregabea da gure gorputza ezagu-
tzeko eta hori berez guretzat ona izateaz gain,
gure esperientziak eta nahiak beste pertsona

batzuekin bizitzeko aukera ematen digu.

Harreman sexualak ditugunean, masturba-
zioak nolabaiteko independentzia eskaintzen
dio bikotekide bakoitzari bere nahi sexuali
erantzuteko. Autoerotismoa pertsona bakoitza-
ren nahien arabera da eta adinak, bikotea
izateak edo sexuak ez du zerikusirik horretan.

Geure buruarekin gozatzea ez da beste per-
sona batekin gozatzea baino hobea edo oke-
rragoa, bi gauzak zoragarriak baitira.
Desberdinak dira, besterik ez. Batzuetan erra-
zagoa da edo nahiago dugu bata edo bestea.
Unean unean erabaki behar!



Amodiozko gutunena



Antolatzailea

Laguntzaileak



PARRAL TABERNA. URTARRILERAKO AGENDA

ORDUA: 20.30 ETAN

- 8AN:
TRIBU CHAMAN TALDEA (GASTEIZ)
- 15EAN:
RICOAMOR (LAUDIO-POP-ROCK)
- 22AN:
MARINA CEDRO ETA RICARDO URRUTIA (BOSSANOVA-TANGO-JAZZ)
- 29AN:
RASTROJO (MUSIKA ETA ANTZERKIA)

ADI HIKATENEKO URTARRILEKO AGENDARI!!!

(Gune soziopolitikokulturala)

Pinto kalea, 13 (Ilehengo Zuloa liburutenda)

EKITALDIK HILERO: ERREZITALDIK, HITZALDIK, BIDEO EMANALDIK, MINTEGIAK, MAHAINGURUAK...

JOSTAILU EBAKIGARRIAK ERAKUSKETA.

HAURRENTZAKO EBAKIGARRIEN MUNDUA. 2002KO URTARRILAREN 13RA ARTE, MONTEHERMOSO KULTURUNEAN



EUSKAL JOLASEN BILDUMA. URTXINTXA ESKOLA (ATSEDENALDIKO HEZITZAILEEN ESKOLA)

- IRAKASLE, GURASO, HEZITZAILE ETA HAURREI ZUZENDUA
- 50 JOLASEN FITXA TEKNIKOAK (JOLAS GUZTIAK MARRAZKI BIZIDUNETAN IRUDIKATUTA), 28 ABESTI, TORTOLOXEN JOLAS INTERAKTIBOA (EUSKAL JOLAS TRADIZIONALEAN OINARRITUTAKO DENBORA-PASA INTERAKTIBOA)
- *ESKAERAK. 943270033. E-POSTA: GIPUZKOA@URTXINTXA.ORG (WWW.URTXINTXA.ORG)

AMODIOZKO GUTUNEN X. BERRIGARA LEHIAKETA

ANTOLATZAILEA ETA OINARRIAK: JARDUN ELKARTEA, ERROTALDE JAUREGIA Z/G 20570 BERGARA

E-MAIL: JARDUN@TOPAGUNEA.COM - EPEA: URTARRILAREN 9A

"Bazeneki behintzat, isilpean zaitudala desio: amodioa dela eta ez odolaren indarra zugana lotzen nauen katea eta penitentzia". AINARA ELIZONDO (2001eko irabazlea)

EUSKARAZ JOLASTEN IKASTAROAK

ANTOLATZAILEA: HIK HASI (EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA) INFORMAZIOA: HIK HASI (943371408)-HARKAITZ (943361476)-LEIRE (943457394) ■ E-POSTA: EUSKARAZJOLASTEN@EUSKALERRIA.ORG





IZEN BILA. ZOZKETA. Oraindik gure pertsonajeak ez du izenik. Proposamen desberdinak jaso baditugu ere, oraindik ez dugu bat hautatu, izen gehiago izan nahi genituzkeelako. Animatu eta bidali zure proposamena!!! Irabazleak sari galantak jasoko ditu.



ARMENTIA
IKASTOLA

Portal de Castilla, 101
01007 GASTEIZ
Tel. 945 14 54 45



HAUR HEZKUNTZA, LEHEN HEZKUNTZA, BAITA D.B.H. ERE!

- Bi urtetik aurrera, kalitateko hezkuntza proiektu integral eta euskalduna
- Ikasle bakoitzaren jarraipen zuzena
- Eleaniztasuna.

Ingelesa 4 urtetik aurrera

-Jangela eta autobusa

-Familiarentzako eta ikastorduz kanpoko ekintzak



USUAL
FOTOGRAFICA

KUTXI, 42 · Tel: 945 288 320
01001 · VITORIA-GASTEIZ
usual@euskalnet.net



- # Estudioak
- # Objektiboak
- # Kamarak
- # Formatu ertaina
- # Laborategia
- # Pelikula profesionalak
- # Albumak
- # Argazki liburuak

- # Argazkilaritza seminarioak
- # Profesional eta afizionatuen errebelaketak
- # Moda
- # Goi mailako lanak
- # Konponketa digitala
- # Erreprodukzioak
- # Bigarren eskuko kamarak



**URTARRILAREN 24an,
OSTEGUNA**

Arratsaldeko 6.30etan

Armentia Ikastolan



PIRRITX ETA PORROTX

KULTUR ERROTA

SARRERAK ARMENTIA IKASTOLAN SALGAI
(aurreko astean, 17.00etatik 18.00etara, 500 pezetan)

GEUK 5 SARRERA OPARITZEN DITU.
DEITU LEHENBAILEHEN!



LAGUNTZAILEAK
GEU elkartea-GEU aldizkaria

ANTOLATZAILEA

